

# Aurkezpena



**H**emen aurkezten den lana, *Euskal Herriko Erdi Aroko hiribilduen atlasa. Bizkaia*, Kantabriako Unibertsitateko Erdi Aroko Historiari buruzko talde batek gauzatutako ikerketa-proiektuaren emaitza duzue. Neuk zuzendu dut aipatutako taldea, eta Lorena Fernández González eta Sergio Martínez Martínez historialariak izan dira kideak.

Proiektua gauzatzeko dirulaguntza Eusko Jaurlaritzak eman zuen 1997tik 1999ra bitartean, Eusko Ikaskuntzak proposatutako lehentasunezko ikerketa-ildoen bidez.

Euskal hiribilduen Erdi Aroko Hiri Paisaia Berreskuratzea izan zen, hain zuzen, ikerketen helburu nagusia. Erdi Aroko hiri-paisaia ezagutzera emateko edo berreskuratzekeo nahiaren arrazoia honako hau da: ikertzaileok jakin badakigu horrelako hiri-okupazioak kolokan daudela. Izan ere, sortu zituztenik (Erdi Aroan, XII-XIV. m.) XX. mendearen lehen erdira arte duintasunez iraun zuten arren, mende horren azken hamarkadetan eta XXI.aren lehen urteetan erruz itxuraldatu dituzte, eta orain oso zaila da hirigune historikoen jatorrizko ezaugarriak antzematea.

Euskal Herriko hiri-gune txikiak, Penintsula eta Europa osokoak bezalaxe, errotik aldatu ziren XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetako nekazari-exodo izugarriaren eraginez. Inmigratio-prozesu horrek bi ondorio izan zituen hirietan: neurritz kanpoko hazkundea eta gune historikoen eraldaketa sakona. Leku askotan, kale, auzo eta gune historikoak ia bete-betean suntsitu zituzten.

Azken urteotan Erdi Aroko hiribildu asko erautsi direla ikusita, “salbatzea” erabaki dugu, ezagutzera emanaz eta jatorrizko itxura berreskuratuz.

Jakinekoa da hiri edo hiribildu historiko oro sortu zuen gizartearen eta denboraren joanean bertan bizi izandakoen jabetza dela. Belaunaldi bakoitzak arbasoengandik jasotako ondasuna, eremu fisiko eraikia, erabiltzeko eskubidea izan du, eta halaber, etorkizunerako uzteko obligazioa ere.

---

Argi dago ezinezkoa dela den-dena iraunaraztea, baina kontua ez da egungo suntsipenaren ondorioz gerora inolako arrastorik ez geratzea. Gure ustez, historialari garen aldetik, ekarpen handia egin dezakegu hiri-ondarea iraunarazteko. Horrela, deskribapen historikoen bidez, kartografia zaharrak eta argazki historikoak berreskuratuz eta planoak, oinplanoak eta altxaerak berriz osatuz, guztion oroimenean bizi-rik irautea lortuko dugu.

Euskal Herriko Erdi Aroko hiribilduei buruzko informazio zehatza lortzea da gure helburua, hirigile, zaharberritzaile eta arkitektoei helarazteko eta agintariak zerbaitez jabetarazteko: tokian tokiko gizartearentzat arriskutsua dela iraganeko esperientzia kolektiboa alde batera uztea eta suntsitzea.

Laneko metodoari dagokionez, ikerketa historikoen ohiko eremuen mugak gainditu ditugu. Erdi Aroko hiribildua nolakoa zen jakiteko, dokumentu idatziez bestelako alorretan ere bilatu dugu informazioa. Izan ere, historialariok dokumentu historikoei horrenbeste zor diegun arren, kasu honetan ez digute argibide gehiegi eman.

Dokumentu grafiko historikoak, ikonografia eta kartografia zaharra alegia, informazio-iturri paregabeak izan dira oraingo honetan. Kritika zorrotza egin eta ikonografia- eta kartografia-iturriak oso fidagarriak direla egiaztatu dugu. Beraz, horrelakoen bidez ezagututako xehetasunei ere eman diegu sarbidea, lanean zehar ikusiko duzuen bezala. Ez ditugu bilatu lekuen edo eraikin nagusien irudi politik, zaharrenak baizik, eta informazio gehien ematen dutenak, nahiz eta batzuetan kalitate aldetik onenak edo nahi bezalakoak ez izan.

Argazki-fondo zaharretan hiribilduen itxuraz antzemandako aztarnak ere baliagarriak izan dira benetan. Ildo horretan, lehen posta-txartelen bildumak dira nabarmentzekoak, udalen edo eraikin nagusien ikuspegi orokorrak agertzen baitira.

Testu, ikonografia eta kartografia historikoen bidez zeharka eskuratutako informazioaz gain, hiri-espazioari zuzenean erreparaturaz ere argibide bikainak, eta gehienetan osagarriak, lortu ditugu. Hiri-planoak, oinarrizko osagaiak bide-sare publikoa eta partzelak direla, bere horretan iraun ohi du denboraren joanean, eta berrerabilitako pergaminotzat edo palimpsestotzat hartu dezakegu. Egungo hiri-planoak aztertuz, Erdi Aroko hiriaren kokalekuko lurra jabe bakar batenak edo hainbatenak ziren jakingo dugu, nahiz eta egiaztatze moduko dokumentu idatzirik ez egon. Ondorioz, aztergai dugun hiriaren edo hiribilduaren planoari begiratzea aski da bertako biztanleek bat-batean sortu zuten edo fundazio berria izan zen jakiteko.

Hiri-arkeologia tradizionalen aurkitu ditugu oso aspaldiko materialen egiturei buruzko xehetasunak, nahi baino gutxiago hala ere. Horrela, eraikinen arkeologiara jo dugu, oraindik zutik dirauten eguneroko bizimoduari lotutako eraikin historikoak aztertzen dituen arkeologiara, alegia. Eta informazio-iturri paregabea izan da.

Azkenik, finkatutako helburua lortzeko, nahitaezkoa iruditu zitzaigun gure ikerlanaren nondik norakoak zehatz-mehatz islatuko zituen kartografia sortzea, eta gure lan-taldeak egin zuen hori. Bertan, testuan aipatutako elementu adierazgarri guztiak datoz zehaztuta. Azken emaitza gure ikerlanean duzue ikusgai. Azalpen-testuekin batera, grafiko ugari datoz, ekintza bakoitza non gertatu zen jakiteko. Edukia hobeto

---

ulertzeko behar beste mapa eta plano sartu ditugu. Halaber, hiribilduetan aipatutako guneei edo eraikin bereziei dagokienez, eskuratutako irudirik zaharrenak ezarri ditugu, irakurleak zehatz-mehatz jakin dezan nolakoak ziren Erdi Aroko hiribilduak: ibaiertzetan zuten kokapena, beren egurrezko zubiak, edo txalupenak, elizak, gotorlekuak, horiei gerora emandako erabilerak, etab. Ikerketaren edukiei eta testuei era guztietako elementu grafikoak eta kartografikoak erantsi dizkiegu, batzuetan lehenetik zeudenak eta beste batzuetan geuk sortutakoak, irakurleak Erdi Aroko hiribilduen, eta askotan berearen, ezaugarriak erraz ulertu ditzan.

Erdi Aroko hirien edo hiribilduen jatorrizko itxura galzorian dagoen honetan, gaiari buruzko ikerlanak egitea da hizpide dugun metodologiaren helburua. Hiri-gune historikoak suntsitzeko joera bertan behera geratzeko modu bakarra hiri-paisaiari buruzko ikerketa dokumentatuak egitea da, errealitate historikoa eta horren balio erlatiboa ezagutzera emateko. Era berean, funtsezkoa da ikerlanok, gero, jarduteko tresna bihurtzea.

*Euskal Herriko Erdi Aroko Hiribilduen Atlas*a hainbat liburukiz dago osatuta, eta arian-arian argitaratuko dira guztiak. Proiektuaren antolamenduaren arabera, hiru hiribildu nagusien –Bilbo, Donostia eta Gazteiz– ezaugarriak zorrotz eta sakon aztertu behar ziren. Erdi Aroko gainerako euskal hiribilduak (60 baino gehiago), ordea, ezin ziren horrela aztertu, hainbat arrazoiengatik: proiektuaren iraupenagatik, ikerlari taldea kide gutxikoa zelako, eta batik bat, informazio-iturrien ondorioz gehiengotan muga handiak zeudelako. Horiek horrela, hiribildu guztietan erabiltzeko moduko eredu finkatzea erabaki genuen, fundazio-garaitik gaur egunera arte oinarrizko ezaugarriak behinik behin jorratu ahal izateko. Horregatik ditu liburuki honek bi atal hain desberdin. Lehen atalak Bilboko hiribildua du aztergai, eta oso luzea da; bigarreanean, aldiz, Bizkaiko gainerako hiribilduen inguruko xehetasunak landu ditugu, labur bezain sakon landu ere, Erdi Aroko itxura gaur egunerako berreskuratzeko asmoz.

Beatriz Arizaga Bolumburu  
*Erdi Aroko Historian Katedraduna*  
*Kantabriako Unibertsitatea*